

# MINTEGIA\_Maiatzak 24\_ESPERIENTZIEN PARTEKATZEA

--Mintegiaren Kronika--

## 1.atala\_SARRERA

Maiatzaren 24an, ostegunarekin, Ikaskide Proiektuan ari garen kideok 2011/12 ikasturteko azken mintegi saioa egin genuen HUHEZIn, 15:00retan hasita, 19:00rak bitartean.

Mintegiaren **helburu nagusiak** honako hauek izango ziren:

- Esperientziak elkartrukatzea
- Elkarrengandik ikastea
- Datorren ikasturterako aurreikuspenak egitea

Behin helburuak azalduta mintegiko partaideak **2 lantaldetan** banatu ginen saioren lehengo atalerako: *Lehen Hezkuntzakoak* alde batetik eta *Bigarren Hezkuntzakoak* bestetik.

## 2.atala\_ESPERIENTZIEN PARTEKATZEA

Lantalde bakoitzeko kideek, aurrera eramaten ari diren **proiektuak aurkeztu** dituzte. *Lehen Hezkuntzakoak* alde batetik eta *Bigarren Hezkuntzakoak* bestetik:

LEHEN HEZKUNTZAKO ESPERINTZIAK

### ZARAUZ SALBATORE MITXELENA IKASTOLA

Aurten hasi dira Ikaskide proiektuarekin. LH-ko talde guztiak eta DBH batzuk(euskara eta Soinketa) dabilta talde kooperatiboen sistemarekin lanean Txanelak proposatzen duen lan ereduari jarraituz batik bat. Grezia eta Erroma, Elikadura, Gu sortu ginen enbor beretik sortuko dira besteak, Animaliak jende zoragarria, Euskal dantzak eta antzeko proiektuak aurrera eraman dituzte.

Bai ikasleak eta bai irakasleak oso gustura daudela azpimarratu dute.

- **Indar-guneak/alderdi positiboak:** ikasleen motibazioak eta auto-estimak gora egin duela taldeetako partaide aktibo eta funtsezko izateagatik.
- **Ahulguneak/kezkak/hobetzekoak:** Gaixo egoten diren ikasleak egun batzuk galtzen dituztenez berriz talde kooperatiboen erritmoa hartzea oso zaila dela ikusten dute. Martxa oso dinamikoa izaten da eta ikasle horiek galduta sentitzen direlako etxean egotetik bueltatzean.

### **SANTURTZI BIHOTZ GAZTEA**

Orain dela bi urte hasi ziren ikaskide proiektuan, hasieran bi talderekin baina dagoeneko LH3tik LH6ra arteko talde guztiak dihardute talde kooperatiboetan Txanela metodoari jarriki nagusiki.

Garapena nabaritu dute hasieratik ona, nahiz eta aitortzen duten lan eta esfortzu handia dela horrela lan egitea. Hasiera batean ikaragarri kostatu zitzaien modu honetan jardutea, batez ere unitate osoak lantzen hasi zirelako eta nahiko "suizida" izan zelako. Hala ere, orain benetan gustura daude bai irakasleak eta bai ikasleak ere. Txanela oinarrian hartuta eta aurre-prestaketa eta aurrelan asko eginda unitate osoak eta kurtso guztian sistema honekin modu eraginkorrean landu daitezkeela diote. Nahiz eta onartzen duten Txanela erabiltzen ez duten ikasgaietan eta unitateetan zailago izan daitezkeela eta teknika gehiago ikastea beharko luketela beharbada.

- **Indar-guneak/alderdi positiboak:** Ikasleak ikasteaz gain disfrutatu egiten dutela.
- **Ahulguneak/kezka/hobetzekoak:** Ebaluazioa. Nola ebaluatu prozesua? Bukaeran egon daitezke azterketa, txostena, aurkezpena, produktua ... Baina prozesua, egunerokotasuna nola ebaluatu? inpresioak jasotzen ditugu baina horretan gelditzen da. Informazio eta matiz asko jaso daitezke egunerokotasunean baina nola jaso? hori sistematizatzea falta zaigu beharbada eta askotan ez dugu jakiten nola egin.

## **BERMEO ELEIZALDE TAR LUIS IKASTOLA:**

2010-2011 ikasturtean jardunaldira etorri ziren, ikaskide proiektuan parte hartzea ideia ona izan zitekeela pentsatu eta 2011-12 ikasturtean ikaskuntza kooperatiboan murgildu ziren aholkularien laguntzaz. Beraien esperientzien berri emateko power point bat ekarri digute honakoa jasotzen zuena labor esanda:

Txanela oinarrian hartuz proiektuak lan egin beharrean beste ikastetxe gehien moduan, ikastetxe honek helburutzat ulermena lantzea hartu zuen eta Nafarroako Ikastolen Elkartaren ULERTUZ metodoa erabiltzen dute batik bat.

- **Indar-guneak/alderdi positiboak:** Proiektu honetan sartu izana hobetzeko aukera izan dela; ikasleek elkarrekin lan egiten ikasi dutela lehiakortasunak bera egin duen bitartean; motibazioak gora egin duela; ikasleak helduago, arduratsuago direla eta kritikoagoak direla; eta elkar errespetatzen ikasi dutela.
- **Ahulguneak/kezkak/hobetzekoak:** Erritmoa hobeto beharra; eduki kantitatea jaitsi dela; bakarkako ebaluazioa nola gauzatu daitekeenaren kezka; rolak ongi definitu eta aurrera eramatea; lan metodo hau eskola guztira zabaltzea.

## **PASAI-LEZO PASAI-LEZO LIZEOA**

LHko maila guztietan egiten dute lan talde kooperatiboetan. Esperimentuak, ipuinen dramatizazioak, pintxo errezetak, dinosauroen maketak eta antzeko jarduerak anitzak egiten dituzte diziplinartekotasunez eta zeharkako konpetentziak oinarrian hartuta batik bat. PEA teknika (pentsatu-entzun-adostu) eta Positibismoaren teknika (ikasleak egindako lanarekiko duten negatibotasunari buelta ematea du helburu. Alegia: "hau gaizki egin dugu, hau ez dugu bukatu ..." bezalako pentsaerei buelta ematea zuten helburu beste irakurketa hau egitea sustatuz: "begira zenbat lan egin dugun, begira zenbat ikasi dugun, begira hau ze polita gelditu zaigun ...") hartu dituzte ardatz besteak beste.

- **Indar-guneak/alderdi positiboak:** Ikasleak baloratuta sentitu direla beti zutelako taldeetan ekarpenik egiterik; eta (ondorioz) ikasleen motibazioak erabat gora egin duela.
- **Ahulguneak/kezkak/hobetzekoak:** hasiera bateko kezka nagusia izan zen batzuetan talde batzuekin denbora luzez jarduten dutela irakasleek eta bitartean beste ikasle talde guztiak bakarrik eta aske egoten direla ezer egin

gabe. Hori nola kudeatu daitekeenarekiko kezka agertu zuten. Hala ere, eurak konturatu ziren horrela izanda ere ez direla “ezer egin gabe” egoten eta askatasun hori ez dela zertan negatiboa izan beti; euren kasuan esaterako ikasle guztien helburuak bete dituztela aipatzen zuten; beraz, ardura sortzen die horrek baina ez dute ezinbestean zerbait negatiboarekin lotzen; Bestalde zailtasun bezala azpimarratzen zuten lan egiteko sistema honek lana zama handia dakarrela. Horri irtenbidea emateko ezinbestekoa ikusten zuten helburuen aukeraketa egitea.

### **LA PUEBLA DE LA BARCA ASSA IKASTOLA**

LH3-4 mailetan jardun dute talde kooperatiboen sistemarekin Txanela oinarrian hartuta, nahiz eta kasu batzuetan beste bide batzuk hartzen dituzten proiektuak euren behar edo interesetara egokitu gauzatzeko.

- **Indar-guneak/alderdi positiboak:** ikasleek elkarrekin ikasten ari direla; autonomia irabazi dutela; ikasleak pozik lan egiten dutela eta hobeto pasatzen dutela sistema tradizionalen baino; ikasleen parte hartzea aktiboago dela; talde espiritua indartu dela eta ikasleak harro daudela euren taldeetako partaide izateaz; ikasleak ikasi dutela garrantzitsua den horren eta ez den horren arteko selekzioa egiten ikasi beharreko ezinbestekoenei lehentasuna emanez; eta azkarrago eta gehiago ikasten dutela.
  
- **Ahulguneak/kekak/hobetzekoak:** Ez dakite zein izan daitekeen prozesua ebaluatzeko modu egokiena, ardura sortzen die horrek; Bestetik aipatu dute batzuetan taldean lan egiterakoan ikasle talde bakoitzak gai bat lantzen duela eta ikasle guztiek gai guztien berri ahozko aurkezpenen bidez izaten dutela, baina konturatu dira horrela ez dituztela ikasle guztiek gai guztiak barneratzen, hortaz, taldeetan edukiak lantzeko beste era batzuk planteatu beharko lituzkeela planteatu dute; Horrez gain diote kooperatiboki lan egiteak liskar asko ere ekarri dituela eta horrek denbora asko kendu diela lanerako. Zaila egin zaie ikasleek rolak eta konpromisoak betetzea eta hori dela eta, rolak egunero aldatzea erabaki dute baina hala ere zail egin zaie gatazkak kudeatzea; Aniztasunaren trataerarekiko ere zailtasunak izan dituzte, kasu batzuetan ez dute lortu Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleak taldeetan integratzea edo partaide aktibo sentitzea; Adierazi duten beste kezka bat irakaslearen esku-hartzearekin lotutakoa izan da. Aipatzen zuten irakasleak bideratzaileak edo laguntzaileak izan behar garela baina ikasleek beti eskatzen dutela laguntza eta arduratzen diela noraino esku sartu behar dutenaren kontuak.

### 3. atala\_ELKARREKIN ONDORIOAK ATERATZEN

Talde bakoitzak bere esperientziak partekatu ostean bi taldeak(Lehen Hezkuntzakoak eta Bigarren Hezkuntzakoak) bildu gara eta talde bakoitzean ateratako **ondorio nagusiak partekatu** ditugu denon artean. Hona hemen:

*Ikastetxe guztiak gustura daude ikasteko metodo honekin, pentsatzen dute aurrera pauso handia izan dela eta bai ikasleak eta baita irakasleak ere gustura daude, bai prozesuko bizipenekin eta ikasitakoekin eta baita emaitzekin ere.*

- Gehienek honako **alderdi positiboak** azpimarratu dituzte:
  - Ikasleak elkarrekin bizitzen eta ikasten ikasten ari da.
  - Ikasleen autonomia mailak gora egin du.
  - Ikasleen motibazioak gora egin du. Horretarako arrazoiak saioan zehar agertu diren honakoak izan daitezke: parte hartze aktiboa, talde sentimendua, beharrezko direnaren sentsazioa, protagonista direnaren sentsazioa(auto-estimak gora) eta batez ere ikasleek disfrutatzen dutela era honetan jarduterakoan, pozik daudela. Alegia, jolasten + ikasten daudenaren sentsazioa dutela nolabait(horrela bada nolabait ideal pedagogikotik gertu geundeekeela aipatu da)
  - Ikasleak arduratsuagoak, konprometituagoak eta helduagoak direla. Eta honekin lotuta erabakiak hartzeko gaitasuna handiago duela (Esaterako helburuak lehentasunaren arabera hartzen dituzte erabakiak ...)
  - Irakasleontzako aldaketa hau ikas-irakas prozesuak hobetzeko aukera izan da.
  
- **Hobetzeko artean** berriz honako hauek aipatu ziren:
  - Gatazken kudeaketa.
  - Ebaluatzeko moduak (nola ebaluatu prozesua?nola sistematizatu egunerokotasunean jasotzen diren matiz eta informazioak? Ze tresna erabil dezakegu horretarako? Nola jakin zen nota jarri ikasle bakoitzari modu indibidualean?Koebaluazioa – autoebaluazioa - heteroebaluazioa noiz eta nola erabili? Azkenean nota jakin bat jarri behar bada, zelan eman ebaluazio guzti horiei izaera kalifikatiboa? )

- Aniztasunaren trataera(nola egin taldeko partaide aktibo Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasteak? Ikasle “bikainenak” adierazten duten indibidualismo eta lehiakortasunarekin zer egin?)
- Gurasoak ere proiektu hauen partaide egitea.
- Eskola guztiaren inplikazioa(proiektuak beste mailetara zabaldu, zuzendaritza inplikatu ...)
- Irakasleen koordinazio(denbora falta dela, ordu-tegi desberdintasuna dela ... zail da proiektu hauek eskatzen duten besteko koordinazioa bermatzea)
- Denboraren kudeaketa(lan handia eta ordu asko eskatzen dituzten proiektuak eta batzuetan ez dugu behar beste denbora horretarako)

#### 4.atala\_ITXIERA

Gaurko saio honekin gure artean **sarea sortu** eta elkarrekin zalantzak, galderak, kezkak, ikasitakoak, esperientziak konpartitu ditugu. Horiek guztiak elkarrekin ikasten ikastea ahalbidetuko digute. Alegia, beharrak identifikatu eta denon artean eta unibertsitateko aholkularitzaren babesarekin erantzuna ematen joango gara hemendik aurrera. Datorren urteari begira sortutako sare komunikatibo honetan identifikatutako behar eta interesen arabera antolatu ahal izango gara. Horrela ba, **gaurko saioaren helburua batez ere sare komunikatibo aktiboa sortzea edo indartzea izan da, gure artean geure beharrei erantzuteko, guztiok guztiotatik eta guztiokin gero eta gehiago eta hobeto ikasiaz.**